

Zuk esan Areatza, hitza emoteko aukerea danontzat

Udalak parte hartzeko erreminta barria sortu dau: Zuk esan Areatza. Herritarrek proposatu eta iritziak emotea da helburua, eztabaidatzeko, aztertzeko, danon artean geure herria hobetzeko.

Gai zehatzak landuko dira, bilaroztarrentzat interes orokorrekoak direnak. Bi modutara egin leike.

- **Kale ekimena.** Adibidez, duela gitxi peatonalizazioen inguruan egindakoa. Lehenengo herritarrei informazioa helarazi, eta egun batzuren ostean, karpa bat jarri, jendearen ekarpenak jaso ahal izateko.


- **WEB gunea.** www.zukesanareatza.com. Edonork aukerea deko iritziak emoteko, proposamenak egiteko, gai barriak atarateko... Une honetan, oinezkoentzako bideen gaiaz aparte, badira bestelakoak zure iritziaren zain: bertako komertzioaren egoera, txakurrekin bizikidetasuna, argindar mozketak, TDTa ganoraz ikusteko deia...

Webgunean aritzeko erregistratu behar da, e-maila jarri. Parte hartzeko muga bakarra errespetuarena da, ez baitira irainik eta kalte pertsonalik onartzen.



El Ayuntamiento, poniendo en marcha la iniciativa Zuk Esan Areatza, da continuidad al trabajo en materia participativa que lleva desarrollando durante los últimos años a través de la Agenda Local 21, definiendo un sistema propio de participación y ahora incorporando las nuevas tecnologías mediante la web www.zukesanareatza.com. Ahí se pueden ver los temas de interés para el pueblo, los debates abiertos y las opiniones de las personas participantes.

Debate, opina, propón temas sobre Areatza, participa: www.zukesanareatza.com



Reparación de la Casa Mudéjar

El Ayuntamiento ha obtenido una ayuda por importe de 80.000 euros para las obras de reparación de la denominada Casa Mudéjar, sita en Errukiñe 2. El planteamiento de la obra consiste en consolidar la fachada principal, de gran interés histórico. Además, se rehabilitará la cubierta, que se encuentra en mal estado.

Por otro lado, el Ayuntamiento está preparando el proyecto para la urbanización de la cárcava que discurre por la trasera del mismo edificio.

Peatonalizaciones: debate abierto

La iniciativa de participación ciudadana puesta en marcha por el Ayuntamiento de Areatza, Zuk Esan Areatza, ya arroja información interesante.

En el mes de diciembre de 2012 se realizó una consulta sobre las peatonalizaciones de Gudarien Plaza y de la Calle San Bartolomé, así como de otros posibles puntos del casco urbano. Tras esto se puso en marcha la web www.zukesanareatza.com, donde se abrió un espacio de debate sobre este tema, cuyo resultado muestra un ligero porcentaje a favor de la peatonalización, pero la división de opiniones es cercana al 50% entre partidarios y detractores.

Una de las cuestiones que más consenso generan es la de vigilar los incumplimientos de tráfico, como los coches mal aparcados en la plaza, en Errukiñe y en Iturrimaur o la entrada en dirección contraria que hacen algunos coches por la calle Errukiñe cuando los bolardos que dan acceso a la plaza están levantados, cerrando ese paso.

Por contra, lo más esgrimido para rechazar la peatonalización es que afectaría al comercio al perderse la opción de aparcar cerca de las tiendas, lo que preocupa no solo a comerciantes, sino también a algunas de las personas que participaron. Otras personas la rechazan porque se perderían aparcamientos.

Entre quienes se muestran favorables a la peatonalización, están las personas que prefieren un casco urbano libre de coches, más amable para el peatón. También se defiende que mejorará la seguridad de las personas (niños, mayores, personas con movilidad reducida) y la calidad de vida, al optar por un casco más abierto a las personas.

La decisión no es sencilla. Habrá que conciliar posturas y buscar la solución menos lesiva posible. Ahora, la Comisión de Participación Municipal, donde están representados los dos partidos políticos, profundizará en estos resultados para tratar de aportar soluciones.

Areatzako Udala

Oinezkoentzako guneak: eztabaidea zabalik dago

Areatzako Udalak martxan ipinitako herri-partaidetzarako ekimenak, Zuk Esan Areatza izenekoak, informazio interesgarria emon dau.

2012ko abenduan, Gudarien plazea, San Bartolome kalea eta herriguneko beste leku posible batzuk oinezkoentzat egokitzearen gaineko konsultea egin zan. Horren ostean, www.zukesanareatza.com webgunea martxan ipini zan. Bertan, gaia eztabaidatzeko espazioa zabaldu zan, eta, emoitza lez, ikusten da jente gehiena, alde txikiagaitik bada be, guneak oinezkoentzat egokitzearen alde dagoala, baina eretxiak ia %50ean dagoz bananduta aldekoen eta kontrakoen artean.

Adostasunik handiena eragiten daben gaietako bat trafikoko arau-haustek zaintzearena da; esate baterako, plazan, Errukiñen eta Iturrimaurren txarto aparkatuta dagozan autoak, edo auto batzuek Errukiñe kaleko kontrako noranzkotik egiten daben sarrerea, plazeara sarbidea emoten dabezana bolardoak altxata dagozanean, sarbidea itxita geratzen delarik.

Aldiz, oinezkoentzako guneak egitearen kontra gehien erabiltzen dan argudioa da horrek kalte egingo leuskiola komertzioari, dendetatik hur aparketako aukerea galduko zalako. Kezka hori ez da bakarrik saltzaileena, baizik eta parte hartu daben beste persona batzuen be bai. Beste batzuk, barriz, aparkalekuak galduko ziralako dagoz neurriaren kontra.

Oinezkoen guneen alde dagozan artean, auto bako herrigunea gura daben personak dagoz, inguru hori oinezkoentzat atseginagoa izan daiten. Era berean, dinoe personen (umeak, helduak, mobikortasun urrikoak) segurtasunak eta bizi-kalidadeak hobera egingo dauela, personentzat irekiagoa izango dan herrigunearen alde egiterakoan.

Eragia ez da erreza. Jarrerak adostu eta kalte gitxien egingo dauen konponbidea topau beharko da. Orain, Partaidetzarako Udal-batzordeak emoitza honeetan sakonduko dau, konponbideak topau ahal izateko.

Areatzako Udala

Adecuación de la Escuela

Pese a que los planes de inversión del Gobierno Vasco en centros escolares, según lo anunciado, se van a retrasar, el Ayuntamiento sigue trabajando a favor de las escuelas del pueblo y ha decidido adelantarse e intentar acogerse a las ayudas para realizar obras de mantenimiento en centros escolares municipales. Para ello, ha encargado al arquitecto municipal un proyecto de

habilitación de la planta baja de la Residencia Bolívar, con el fin de dedicarlo a aulas y otros servicios educativos. Gracias a esta esperada ampliación, que se prevé ejecutar durante las vacaciones escolares de verano, se prescindirá de las aulas prefabricadas, más frías y desapacibles, para ganar en habitabilidad y comodidad. Ambos solares, el escolar y el que acoge a la Residen-



cia Bolívar, se unirán mediante la construcción de una conexión peatonal que dotará de unidad al centro escolar.



Parot doktrinaren kontra

Apirileko Udalbatzean aho batez onartu da 197/2006 doktrinako mozioa. Doktrinak Espainiar Estatuak duen jarrera agerian utzi du, euskal presoen aurka salbuespeneko legedia eta bitartekoak aplikatzen dituelako. 2012ko uztailean Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak Doktrina hori ez legezkoa eta oinarritzko eskubideen aurkakoa dela ebatzi zuen, presoek eta beraien senitartekoei dituzten eskubideak urratzen dituelako eta nazioarteko Giza Eskubideen Arauen ganetik pasatzen delako. Horren aurrean, Areatzako Udalak honako erabaki hau hartu du:

1. 197/2006 doktrina bertan behera uzteko eskatzea, baita doktrina aplikatu zaien euskal preso guztiak berehalakoan askatzea ere.
2. Euskal Herrian bizi dugun itzaropen eta konponbide aukeren aurrean, euskal presoek aurkako salbuespeneko legeria bertan behera uztea.
3. Ebazpen honen berri herritarrei eta Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako Komisionatua den Nils Muiznieks jaunari ematea.

Pisos disponibles

El Ayuntamiento ha concluido el proceso de oferta de alquileres de los pisos de la promoción que realizó Azpiegiturak (antigua Bizkailur) en Areatzagane. En la actualidad, todavía quedan algunos pisos disponibles. Por eso, si hay personas interesadas pueden ponerse en contacto e informarse a través de la citada sociedad pública:

AZPIEGITURAK S.A.U.

Islas Canarias 21, 2ª – 3ª
48015 BILBAO (Bizkaia)
Tel: 946 073 700
Fax: 946 073 637
azpiegiturak@bizkaia.net

Zuhurtzia-politikea

Udalak plan ekonomiko-finantzarioa egingo dau bere zorrak murrizteko. Egia esateko, Udalaren zorpetze-maila eskatutako gehienezko parametroak baino askoz beherago dago (%51ean dago, eta komenitako gehiena %75 da). Halanda be, zuhurtziaz jokatu behar da finantza-esparruan, eta, ildo horretan, Areatza 1338, SL soziedadeak daukan zorpetze-maila murriztu egingo da, Babes Ofizialeko Etxebizitzak erosteko sinatu diran hipoteka-maileguen ondorioz.

Superavit en 2012

El Ayuntamiento ha liquidado el ejercicio presupuestario de 2012 con un ligero superávit de más de 13.000 euros y con un remanente de tesorería igualmente positivo, de más de 120.000 euros. De esta manera, el Ayuntamiento cumple con las obligaciones de estabilidad y sostenibilidad de las finanzas locales impuestas en esta área, sin prescindir ni recortar los servicios sociales básicos y sin dejar de subvencionar las actuaciones de las distintas entidades que funcionan en Areatza.

Bilazoztarron hitza

El espacio informativo ocupado por estas palabras será a partir del próximo número un espacio para ti, para tu asociación, para tu club, para tu cuadrilla, para tu partido político... A través de Areatza Lantzen Barria puedes, a partir de ahora, opinar, aportar o comentar cualquier cuestión relacionada con nuestro pueblo, con Areatza. Lógicamente, no aparecerán en la revista aquellas car-

tas que contengan insultos, ataques personales, datos que puedan afectar a terceras personas, etc. Las cartas irán firmadas (a título individual y/o colectivo) y contendrán como máximo 1300 caracteres (espacios incluidos). Podrán escribirse en euskara o castellano, y así serán publicadas. Queda abierta, por tanto, esta nueva vía de expresión y participación ciudadana.

Bidali ezazu zure idatzia helbide honetara: areatzalantzen@bizkaia.org

Zuhaitz Egunean etorkizunaren hazia ereiten

Iragan martxoaren 23an Zuhaitz Eguna ospatu zan Areatzan, aurten pixkat beranduago aurreko urteekin konparatuta, basoetan hainbat edur izan dalako otsaila eta martxoa bitartean. Hainbat jende bildu zan Iturrimaurren inguruan sagarrondoak eta gaztainondoak landatzeko.



Ondoren, azken urteetan martxan jarri dan "Ume bat, zuhaitz bat" sensibilizazio kanpainak jarraipena izan eban. 12:00etatik aurrera, Karpon batu ziran 2012 urtean zehar jaiotako 12 haurrak familiekin batera, ume bakoitzak bere zuhaitza landatu zezan. Zuhaitz bakoitzaren ondoan plaka bat jarri zan, haurraren izenagaz eta jaiotze datagaz. Hemendik aurrera, zuhaitz hori haurrarena izango da, eta umeak zuhaitza zaintzeko ardura hartuko dau. Jardunaldia bukatzean, luntxa eskaini zan, Zuhaitz Egunean parte hartu eben guztientzat.





Areatza be, euskararen alde!

Korrikak markak hautsi dauz aurten, partaidetzari jagokonez, eta bilaroztarrok be geure partetik imini dogu.

Martxoaren 21ean, goizeko 10:50etan zehazki, abiatu zan Korrika Areatzatik. Norbanako eta kolektibo ugarik egitasmoa aurrera atarateko lagunduten dabe, eta Areatzako Udalak be bere ekarpena egin dau, kilometroa erosiz.

Aurten, Korrikak, euskalduntze prozesuan ari diran herritarrak omendu dau eta Udalak helburuaz bat egin nahi izan dau. Horregatik, lekukoa euskara ikasten ari diran

bilaroztar Lupe eta Ruth-ek eraman eben.

Bertako Korrika

Korrika ofizialaz gain, martxoaren 22an, Laminetxe Gaztetxeok herrian Korrika berezia antolau eben, gabeko 22:00etan. Jende andana bildu zan Gaztetxearen alboan eta handik irtenda herriko kaleak zeharkatu ziran. Areatzako talde eta elkarte desbardi-

nen artean euskararen lekukoa garraiatu zan, geure herria Korrika eta euskararen alde dagoela agertuz. Amaiera gisa, txokolatea dastatzeko eta kontzertuaz disfrutatzeko aukerea izan zan Gaztetxean.



Korrikak Euskal Herri osoan zehar 2.000 kilometro inguru gurtzatu dauz eta Areatzako Udalaren AUZOKAR ekimeneko berebiletako bat erabili dabe antolakuntzakoek ibilbide guztian zehar.



Areatzako euskararen egoera hobetzeko lanean

2012an, Areatzako herritarrez osatutako Euskara Batzordean, herrian euskararen egoeraren diagnostikoa egitea adostu zen. Prozesua martxan jarri zen eta udalak diru partida bat jarri zuen lana burutzeko. Areatzako euskararen egoeraren diagnostikoa egin ahal izateko, AEK-AHIZE euskara zerbitzua kontratatu zen.

Diagnostikoa egiteko prozesuan, herritarrek eta herriko eragileak izan dira protagonistak, besteak beste: guraso elkarteak, ordezkariak, udalekoak, eskolakoak, kultur kirol batzordekoak, gaztelekuak, eskupilota elkarteak, ludotekak, komertzio-etakoak... etabar.

Diagnostikoaren emaitzak agerian utzi ditu herriak euskararen inguruan dituen ahulezia eta indarguneak. Hauek dira **ahulezieta-ko batzuk**:

- > Umeak gero eta gazteago hasten dira gaztelan hitz egiten.
- > Euskaldunen artean gaztelan hitz egiteko joera handia dago; adin nagusikoen artean batez ere.

- > Elkarleen barne funtzionamendua askotan gaztelan egiten da.
- > Baliabide material edo ekonomikoaren falta dago.
- > Merkataritzan langileen euskara ezagutza falta dago.
- > Euskararen aldeko ekintza gutxi antolatzen dira.
- > Orokorrean euskararen aldeko kontzientzia eta jarrera eskasa edo jarrera pasiboa dago herrian.

Hala ere, herriak euskararen gainean badi-tu **indarguneak** ere:

- > Elkarrekin hitz egiteko dago euskara bermatua.
- > 30 urtetik beherakoen artean euskararen ezagutza bermatua dago.
- > Irakaskuntzan funtzionamendua erabat euskarazkoa da.
- > Egungo guraso gazteek euskara gehiago darabilte.
- > Eskolaz kanpoko umeentzako ekintzak euskaraz dira gehienbat.



Euskararen sustapena

Areatzako Udalak Gorbeialde Irratiari laguntzen segiduko dau, euskaraz jarduten dauen Arratiako komunikabidea dan aldetik. Begitu argitalpenak be arrazoi berberagaitik jasoko du laguntza.

- > Elkarrekin hitz egiteko dago euskararen aldeko jarrera ona, inplikazioa, kontzientzia eta sentsibilizazioa dago.

Indargune horietatik abiatuz, aipatutako ahuleziak gainditzeko urtero-urtero egin behar duguna zehaztea da hurrengo pausua, eta Areatzako Euskara Batzordea horretan lanean dago, apurka-apurka gure herria euskaldundu ahal izateko. Herritar guztiok Areatzako Euskara Batzordean parte hartzea gonbidatzen zaituztegu.

Jaietarako lanean

Apirilaren 26an hurrengo batzarra

15 egunetan behin batzen da Jai-Batzordea. Hurrengo bilera apirilaren 26an izango da, 18:30etan. Momentuz hamar/hamabi pertsonako taldea ari da lanean, herriko talde eta elkarteak gonbidatzearen ondorioz sortu zana. Baina parte-hartzea zabalik dago, eta herritar orok hartu lezake parte. Beraz, animatu eta danon artean jai alaiak eta partehartzaileak prestatuko doguz, aurrekontua murriztu dalako, baina ez ilusioa. Dagoeneko, ganera, badira nobedadeak. Adibidez, seguritate perimetrorak direla eta, Astondoaren suak formato barria eukiko dabe, eta zapatuko desfile barruan eskainiko dira. Segi daigun, beraz, jaiak danon artean antolatzen.

Konpartsa eratzeko urratsak

Areatzako konpartsa sortzeko lehenengo urratsak ematen ari gara. Aurreko hiletan, Kukubiltxoko Josu Camararen laguntzaz, zankotan ibilteko tailerra antolatu zan gazteleku gazteekin. Ganera, apirilaren 20an, Deustuko Ondalan konpartsa laguntzaz, buruhandi, erraldoi eta hankapaluen jaitxoa antolatu zan. Gazteek buruhandiekin ibilteko aukera izan eben, erraldoiak dantzan jartzen ikasteko eta baita hankapaluetan ibilteko aukera be.



Para garantizar el futuro...

Seguiremos trabajando para crear una comparsa en Areatza. Es necesario impulsar el relevo generacional para tantos y tantos bilaroztarrak que durante años se han encargado de sacar los cabezudos y bailar los gigantes, tan arraigados en nuestro pueblo e imprescindibles en cualquier fiesta de Areatza.



Areatzak harrera bikaina emon deutso bosgarren edukiontzari

Areatza es el municipio de Arratia donde mejor acogida ha tenido la implantación del quinto contenedor. El 37% de las familias del pueblo ya se ha sumado a la iniciativa.

Gure herrian dagozan 608 familietatik 225 emon dabe izena bosgarren edukiontzia egitasmoagaz bat egiteko, %37 baino apur bat gehiago. Arratiako Udalen Mankomunitatea osatzen daben udalerrien artean izan dan handiena, beraz.

Bosgarren edukiontzia Arratian ezartuteko kanpaina 2012ko azaroan hasi zan, informazioa zabaltzeari jagokonez, baina bilketa zerbitzuaren hasera berez 2013ari ekin orduko hasi zan. Duela gitxi, martxoan zehazki, zerbitzuaren ezarpenaren kanpainaren amaiera jazo da.


Ondorioak

Informazio kanpainari esker, Arratiako 1.565 familia inskribau dira (%28), baita 85 ekoizle handi (supermerkatuak, fruta-dendak, jantokiak, jatetxeak, tabernak, enpresak, etabar (%89). Ondino be badau egitasmoagaz bat egiteko aukerea, eta beraz tokian tokiko udaletxetan informazioa jasotzeko aukerea be bai.



Quién desee sumarse a la iniciativa puede pasar los viernes por el Ayuntamiento donde se le entregará el kit del quinto contenedor.

Herriz-herri bat egin dutenen familien kopurua



“Mariposas en el Hierro” suscitó un gran interés

La proyección de “Mariposas en el hierro” levantó gran expectación. Este documental recoge testimonios de mujeres víctimas de distintas formas de violencia. Son mujeres de distintas ideologías, origen y extracción social, que han sabido fortalecerse, pese a su dolor, para caminar hacia la superación de las múltiples violencias que han sufrido de forma directa. Son mujeres que han vivido la violencia de ETA, del GAL, violencia institucional, violencia machista... u otras como la que sufren las mujeres emigrantes o las desahuciadas.

La iniciativa del Ayuntamiento, con la colaboración del Foro de Mujeres de Areatza, contó con muy buena respuesta de la gente, que llenó el aula municipi-

pal el pasado 19 de abril para ver esta cinta y asistir al posterior coloquio, que contó con la presencia de la directora de la cinta, Berta Gaztelumendi. Junto a ella estuvieron Edurne Brouard, que aparece en el video por ser víctima de los GAL (asesinaron a su padre Santi Brouard), y Arantza Madariaga, gran impulsora de este proyecto a través del Centro Internacional de Innovación en Políticas de Igualdad (CIIN-PI). Hay que destacar la gran participa-



ción de la gente, por cantidad y calidad, ya que se implicaron a la hora de hacer preguntas y aportar cuestiones de interés durante el debate surgido en el coloquio.

Agenda kulturala



Apirilak 26. "Fènix 11*32". Cine-forum.

A las 19:00, en el Areto del Ayuntamiento, emisión de la película "Fènix 11*32" y charla con el protagonista.

Esta película, de Joel Joan y Sergi Lara, escrita por Albert Plans Soriano y Hèctor Hernández Vicens, refleja hechos reales ocurridos en 2004. Èric Bertran, un niño de 14 años, creó una web para defender la lengua catalana, inspirándose en Harry Potter y la Orden del Fénix. Una noche, treinta guardias civiles de la brigada anti-terrorista de Madrid, irrumpieron en su casa y lo acusaron de terrorista informático. ¿Cual fue su crimen? Enviar un mail a unos supermercados pidiendo el etiquetaje en catalán.

Más información: www.fenix1123.cat/es/

Maiatzak 4 Santi Kurutze jaia.

11:00 - Irteera plazatik Santi Kurutzeraino.

Bide zaharretik igoteko jatorrizko bidea errekuperatu da.

12:00 - Santi Kurutzen meza.

12:30 - Askaria bertan.

13:30 - Plazarantza bide zaharretik.

14:00 - Areatzako hankapatuak eta buruhandiak musikaz lagunduta, plazan.

Oharra: Musikaz girotzen Iker Allur trikitilaria eta Areatzako pandero taldea izango dira.

Maiatzak 10 "Animalia ezberdinen oinatz eta arrastoak". Ginkana didaktikoa.

Gorbeia Parketxeak antolatutako ekintza da ginkana didaktiko hau, haurrentzako bereziki pentsatutakoa. Gogorarazten deusuegu persona kopurua mugatua izango dala, beraz, izena emoteko edo informazio gehigarriak nahi izanez gero, kontaktuan jarri:

Gorbeia Parketxea: 946 73 92 79

gorbeia.park.naturala@bizkaia.net

Maiatzak 11. II Arratia Raid, Areatzan.

Aurreko edizioan Arteak hartu bazuen egitasmoa, oraingoan geure txanda da. Izan be, Areatzan izango da II Arratia Raid, Xegiba taldeak antolatuta. Txirrina gustoko dabenezako barri ona, beraz.

Maiatzak 18 Salida al monte con Iñaki García Uribe



Gracias a Gorbeia Parketxea, se realizará una visita guiada a la nevera más imponente de Europa, situada en Itxina: Zaratate-Neberabarri, el manantial de las fábricas de hielo.

Ekainak 15-Uztailak 14 Exposicion fotografica.

La ludoteca acoge la exposición de fotografías "Arratiako begiradak", de Eulalia Abaitua. Las instantáneas podrán verse desde el 15 de junio al 14 de julio.

Eta adi uda datorrenerako...

- > Ekainak 21. Areatzako Banda, Durangoko Banda eta Piroteknia musika ikuskizuna.
- > Ekainak 22. Gorbeia Gurutzera txangoa, Parketxearen eskutik.
- > Ekainak 23. SAN JUAN gaua. Zubizarran.
- > Ekainak 29. Donostira irteera. Erraldoien kontzentrazioa.

Gogoratu: Urriaren 5ean, EUSKAL JAIA

Aurtengo Euskal Jaia antolatzeko jada bi batzar egin dira, bertan data eta gai nagusia aukeratu dira eta egun osoko programa aurrera eramateko ideia interesgarriak planteatu dira. Datari dagokionez, herrian antolatutako beste ekintza batzuk ez oztopatzeko eta parte hartzea suspertzeko, aurretik aukeratutako data (ekaina) atzeratu egin da. Azkenean, Euskal Jaia urriaren 5ean izango da. Aurtengo gaia "Euskal Ezkontza" izango da, elementu guztiak kontutan hartuz: ezkongaiak, familiak, lagunak, Amerikako osaba-izekoak, jauna, notarioa, etabar. Hortaz, antzezlanerako jende asko behar dugu, gogotsuak eta alaiak, pertsonai horiek guztiak betetzeko. Hurrengo batzarra maiatzean egingo da eta falta diren ekintzak zehaztuten joango gara. Esandakoari eutsiz, bilaroztarren proposamenak eta ideiak ezinbestekoak dira jai herrikoi hau ondo atara dadin, beraz, animatu eta murgildu antolaketa lanetan!

